



ABANDOKO
SAN BIZENTE MARTIRIAREN
PARROKIA

PARROQUIA
DE SAN VICENTE MÁRTIR
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)
T. 94 423 12 96
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Jauna! Zure adiskidea gaixo dago.”

2023ko martxoaren 26a
Garizumako 5. igandea (A)

Joan 11, 1-45.

Gizon bat, Lazaro zeritzana, gaixo zegoen. Betaniakoa zen, Maria eta honen ahizpa Martaren herrixkakoa. Bi ahizpek Jesusi albistea bidali zioten: “Jauna! Zure adiskidea gaixo dago”. Jesusek, hori jakitean, esan zuen: “Eritasun hau ez da heriotzara eramateko, Jainkoaren aintza azaltzeko baizik, beraren bidez Jainkoaren Semearen aintza azal dadin”.

Marta, honen ahizpa eta Lazaro oso adiskide zituen arren, hau gaixo zegoela jakinda ere, Jesus beste bi egunez gelditu zen zegoen lekuan. Ondoren, esan zien ikasleei: -Goazen berriro Judeara.

Jesus iritsi zenean, jadanik lau egun zeramatzan Lazarok hilobian. Marta, Jesus zetorrela entzun orduko, bidera irten zitzaion; Maria, berriz, etxean gelditu zen. Martak esan zion Jesusi: Jauna, hemen izan bazina, gure neba ez zen hilko. Baina, halere, badakit eska diezaiozuen guztia emango dizula Jainkoak.

Jesusek erantzun zion: Piztuko da zure neba.

Eta Martak: Badakit, bai, piztuko dela azken egunean, hildakoen piztuerakoan.

Jesusek esan zion, orduan: Neu naiz piztuera eta bizia; niregan sinesten duena, hilda ere, biziko da. Eta bizi dena, niregan sinesten badu, ez da betiko hilko. Sinesten al duzu hau?

Martak erantzun zion: Bai, Jauna, sinesten dut zeu zarela Mesias, Jainkoaren Semea, mundura etortzekoa zena.

Lazaroren biztuerak Jesusen eta kristauen biztuera adierazten dau. “Bizi” ori ez da gorputzeko bizia bakarrik, betiko bizia da, Jesusek biztuera-egunean Aitarengandik artuko duen bizi barria.

GURE ESPERANTZA

José Antonio Pagola

Harrigarria da Lazaroren piztueraren kontakizuna. Batetik, inoiz ez bezalako ageri da Jesus une honetan: gizatar, hauskor eta bihotzeko; izan ere, bere adiskiderik onetakoa hil zaio. Bestetik, inoiz ez bezalako gonbita egin digu: bere ahalmen salbatzailean sinestera: «**Neu naiz piztuera eta bizia: nigan sinesten duena, hilik ere, biziko da... Sinesten al duzu hau?**»

Jesusek ez du ezkutatu Betaniako hiru neba-arreba horiekiko maitasuna; segur aski, etxean hartzen baitzuten Jerusalemara zetorren bakoitzean. Behin batean Lazaro gaixotu da eta haren arrebek mandatua bidali diote Jesusi: gure neba, «**hainbeste maite duzuna**» gaixo da. Jesus herrixkara iristean, Lazarok lau egun daramatza hobiraturik. Jada ezin du inork ere hura bizitzara ekarri.

Familia jota dago. Jesus aurkeztean, negarrari eman dio Mariak. Ezin kontsolatu du inork. Bere adiskidearen negar-zotinak entzutean, Jesusek ere ezin eutsi dio eta negarrari eman dio. Bihotza lehertu zaio heriotzaren aurrean guztien ezina sumatzean. Nork kontsolatzen ahal gaitu?

Bada gu baitan bizi-nahi aseezin bat. Egunak eta urteak ematen ditugu bizitzeko borrokan. Zientziara jotzen dugu eta, nagusiki, medizinarara, bizitza biologiko hau luzatzeko; baina beti da azken gaixotasun bat, inork ere sendatu ezina.

Ez liguke balio izango bizitza hau betiko bizitzeak ere. Izugarria izango litzateke mundu zaharkitu bat, jende zaharrez bete, gazteentzat geroz eta toki gutxiago lukeena, mundua zeinetan ez bailitzateke bizitza berritzen joango. Desio duguna beste bizitza bat da, oinazetik eta zahartzerik gabea, goserik eta gerlarik gabea, bizitza guztiz zoriontsua guztientzat.

«Ziurtasunik gabeko gizarte» (Z. Bauman) bezala deskribatu izan den gizarte batean bizi gara gaur. Inoiz ez zuen izan gizakiak gaur adinako ahalmenik bizitza zoriontsuago baterantz egiteko. Eta, halaz guztiz, agian inoiz ez da sentitu hain ahalgabe etorkizun ziurtasunik gabeko eta mehatxagarri baten aurrean. Zer espero dezakegu?

Aldi guztietako gizakiak bezala, gu ere ilunak inguraturik bizi gara. Zer da bizitza? Zer da heriotza? Nola bizi behar da? Nola hil behar da? Lazaro piztu aurretik, bere jarraitzaileentzat erronka erabakitzaile diren hitz hauek esan dizkio Jesusek Martari: «**Neu naiz piztuera eta bizia: nigan sinetsiko duena, hilik ere, biziko da... Sinesten al duzu hau?**»



ABANDOKO
SAN BIZENTE MARTIRIAREN
PARROKIA

PARROQUIA
DE SAN VICENTE MÁRTIR
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)
T. 94 423 12 96
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

Zalantza, ilunaldiak eta guzti, kristauok Jesusengan sinesten dugu, biziaren eta heriotzaren Jaun horrengan. Jesusengan bakarrik bilatzen dugu argia eta indarra biziaren alde borroka egiteko eta heriotzari aurre egiteko. Jesusengan bakarrik aurkitzen dugu bizi esperantza bititza hau baino harago.